


3.19

Paula Arroita Usategi eta Franzisko Etxebarria Madariaga. Paula Zeberion jaio zan 1892 urtean, eta Pablo eta Franziskaren hirugarren oinordekoa (Rosaren bikotxa) izan zan. Franzisko aintzina (1950 ingurura arte) Arantzazu izan eta gaur Areatza dan Bite-rin jaio zan 1892-IX-19an. Paula eta Franzisko ezkondu eta zortzi seme-alaba izan ebe-zan: Franzisko, Josefa, Klaudia, Anbrosio (Barbastroko gotzaina), Karmen, Pedro (Uri-koako Nati Artetxegaz ezkondua), Elena (Urikoako Biktoriano Artetxegaz ezkondua) eta Julian (urte bigaz hil zana). Franzisko 1972-II-2an hil zan; Paula 1976-VI-19an.



## 3.20

---

Zeanuriko Seberiana Etxebarria Gallarza eta Katikenako Txomin Artetxe Bilbao. Antonio eta Mariaren hirugarren oinordekoa izan zan Txomin: Pedro (1872), Josefa (1875), Txomin (1877-III-9an jaioa), Miguel eta Konzeption. Txomin eta Seberianak hiru seme-alaba izan ebezan, Blasa eta Lorenzo (bikotxak, 1912an jaioak) eta Txomin (1914an jaioa, hau bere seme bikotxa izan zan, bestea jaiotzean hil bazan bere). Argazkia ezkontzakoa da (1909 aldekoa). Txomin 38 urte ebazala hil zan, 1915.ean.



3.21

---

Olarreko Pilar Artetxe Idirin (1908-III-20an jaio eta 1994-III-21ean hil) eta Mendatako Juan Intxausti Arbe. Katikenako Pedro Artetxe Bilbao eta Pilar Idirin Urizarren alaba da Pilar. Pedro eta Pilar 1897.eko epailaren 15an ezkondu eta bost seme-alaba izan ebezan: Juan (1898), Gerbasio (1900), Manuel (1903), Roman (1906) eta Pilar. Argazkia Pilar eta Juan ezkondu ziranekoa da, 1932ko zezeilekoa. Pilar Artetxeren ama (Pilar Idirin) Zabalarrekoa zan. Han taberna bat euken eta han gelditzen zirean beharrezko atsedena hartuten mandoakaz eta ibiltzen zirean toneleroak.



## 3.22

---

Olarreko Ruperto Bernaola Uriarte (1868.ean jaioa) eta Faustina Uriarte (Zeanurin, 1871an). Igorreko Jose Inazio Bernaola eta Arantzazuko Maria Akilina Mendibilek zazpi seme-alaba izan ebezan: Santiago, Zeledonia, Dolores, Ruperto, Jose Maria (1871), Maria (1874) eta Juan Inazio (1879). Ruperto eta Faustinak, oster, bederatzi: Sotero (1891), Maria Akilina (1894), Zeledonia (1896), Dolores(1899), Hipolito (1902), Maria (1904), Franziska (1906), Felizidad (1908) eta Hipolito (1916).



3.23

---

Sotero Bernaola Uriarte eta Ipiñaburuko Elena Atutxa Zuloaga. 1925.ean ezkondu zirean eta Ipiñaburura joan ziran bizitzera. Sotero 1891 urtean jaio eta 1976ean hil zan 85 urtegaz; Elena 1897 aldera jaio eta 1981an hil. Ezkondu eta zortzi seme-alaba izan ebezan: Jesusa, Angel, Atanasio, Jose, Antonino, Isabel, Ruperto eta Andres. Danak dira Ipiñaburun jaiok eta gero etorri zirean Olarrera, lenengo aita eta gero seme-alabak.



## 3.24

---

Igorreko Muliko Jose Uribarri Ibarrondo (1891an jaio eta 1973-IV-8an hil) eta Dimako Agarreko Regina Atutxa Atutxa (1895ean jaio eta 1972-XII-12an hil). 1919 aldera ezkondu (argazkia ordukoa da) eta zazpi seme-alaba izan ebezan: Josepa, Anastasia, Sotera, Regina (4 urtegaz hil zana), Manuel, Jose eta Miren.


Gaur euren seme Manuel bizi da Josek 1937an altzau eban Olarreko etxean. Jose argiña zan eta aldikadak egiten ebazan etxetik kanpo. Orduan bere aita Tiburtzio etorten zan Olarrera ganaduak gobernau eta etxeko buru egiten.



3.25

---

Maria Larrabide Urgoiti (Bilboko Olabeagan jaio zan 1889-V-21ean; umezurtz gelditu zan eta Igorreko Saratzuko sendiak hazi eban) eta Patxi Ordenaña Urkiaga (1888-X-13an jaioa Olarren, gaur Uribarritarrak bizi diren lekuan egoan etxe zaharrear; 1974-IX-1ean hil zan). Patxi eta Maria 1914-II-14an ezkondu zirean eta zortzi seme-alaba izan ebezan: Alfonso, Agueda, Juanita, Gerbasio (umetan hil zana), Patxo, Rafaela, Juan eta Blasa. 1936ean, gerra zibilean, etxea erre jakeen eta handik Txoritxera pasau zirean. Han egon zirean 2-3 bat hilabete eta gero Landajotarrak bizi diren etxera pasau zirean Ibarretara. Gero gaur alaba Blasa bizi dan txaleta erosi eutseen Santos Bilbaori (Katikenako propiedadearen ugazaba zana).



## 3.26

---

Txoritxeko Pedro Bilbao Estankona (Arantzazun 1845ean jaioa) Arantzazuko bertako Franziska Larrea Bilbaogaz (1857an jaioa) ezkondu zan eta hiru seme-alaba izan ebezan, Eujenio, Maria Jesus eta Josefa. Alargundu eta Berriatuko Dominga Zabalagaz (1855an jaioa) ezkondu zan. Jaio bako bi seme-alaba izan (1893 eta 1895) eta Uriko seme bat ekarri eben, Fakundo Maximo (argazkikoa). Maximo hau Erandion 1895-III-17an jaiotako Josefa Patrizia Unzurrunzaga Lezuriagagaz ezkondu zan 1935ean eta seme bat izan eben: Franzisko Jabier Berganza (1938-XII-3an jaioa). Maximok 35 urte egin ebazan Etxebarrian lanean eta 1956-XII-9an hil zan Arantzazun. Bere emazte Josefa 1972-X-4an hil zan Barakaldon.